

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 245. alea - 2019ko azaroa

**Aritz Loiola,
kameraren
beste aldean**



G



**JOXEAN GALDONA
AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**A
D**

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



VIGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak



**Argazkilaria
Ander Salegi**

(argazki erreportaiak, photoshop-eko
erretakeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



sasoiiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

AURKIBIDEA

4

GUTUNAK

“Mutriku-Debaren
arteko bidegorria
dela eta”
(Joxemari Altzibar)

8

KRONIKA

“Jardunaldi feministak
Durangon
eta Lolita Chavezen
bisita Debara”

12

ALBISTEA

Hilerri berriko obrak
behin-behinean gelditzeko
agindua eman du
Debako Udalak

14

ALBISTEAK

“*Arnasa Gara* ekitaldia
Burugorri Gainean”,
“Sekulako giroa Kolore
Anitz Egunean!”...

16

B. GAZTEA

Mendatiko ikasle ohiak,
etorkizuneko irakasle;
marrazkiak
istorio bilakatzen...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatza
euskarako elkarteak Deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saiburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero, Koldo Aperribai eta Terese Larrañaga

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria


Inprimategia: Euskalinpri

Legedailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Mutriku-Debaren arteko bidegorria dela eta



Deba eta Mutriku artean kostako errepide honek eskaintzen duen paisaiaren edertasunaz aspaldi ohartuta geunden hainbeste aldiz hortik oinez, txirriinduan, korrika edota autoz pasatu garenok. Foru Aldundiak, 12 milioiko aurrekontu batekin, Deba eta Mutriku arteko errepidea hobetu eta honen ondoan bidegorri edo pasealekua eraikiko du.

Errepidearen hobekuntza beharrezkoa zen, ez dago dudarik. Pasealeku honek, balkoi honek, ekialdera eskaintzen dizkigun bistak paregabeak dira. Beste pasealeku askok ez bezala, itsaso gainean eskegita, euskal kostaldearen zati eder batez gozatzeko aukera paregabea eskaintzen digu. Bai, bidegorri edo pasealeku horrek liluratu egingo gaitu. Niri harridura zerak sortu dit, baina, obra hau Mutrikun hasi eta Ondarbeltzen bukatuko dela jakiteak. Oso zaila egiten zait ulertzea ibilbidea eta errepidearen konponketa nola ez

den Deban bukatzen; zehatzago esateko, nola ez den iristen Deba eta Mutriku artean "konpontzeko zain" dagoen zubira arte.

Zubitik Ondarbeltzera artean espaloia, semaforoa daukagu Goiz Argi etxera arte. Goiz Argi etxetik Ondarbeltz arteko tarte hori egoera hain degradatuan utzi behar al digute?

Bere horretan uzteko argumentuak ez dira faltako: "Kostas"-en, "Puertos"-en eskumenak direla, berdin 2017ko estuarioaren birmoldaketa dela...

Goiz Argi etxeetatik Ondarbeltzera zenbat metro daude, berrehun edo hirurehun? Ez da asko, ez, baina bai oso arriskutsua. Errepidea estutu egiten da, Mutrikutik berritutako errepidearen hobekuntzak ez du ibilgailuen abiadura motelduko, bisibilitatea ez da oso ona eta kontuan izanda errepidea alde batetik bestera gurutzatu beharko dugula... Bada, bidegorritik Mutrikura joateko edo handik Debara etortzeko



gune arriskutsu honetatik igaro beharko dugu... Hau horrela ikusita, ezin dut imajinatu Zarauztik Getaria bitarteko pasealekua berrehun edo hirurehun metroren faltan utziko balute...

"Deba eta Mutriku arteko oinezkoentzat pasealekua eta bidegorria" dio Foru Aldundiak zabaldutako iragarkietan. Ba ez, barkatu, baina Mutriku eta Ondarbeltz arteko bidegorria izango da eta, bere erakargarritasun guztiarekin, ezin dugu azpimarratu gabe utzi sortzen duen arrisku erantsia.

Joxemari Altzibar



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

Euskaraldiaren edizio berrirako lanean hasteko ordua heldu zaigu jada

Kaixo lagun,

2018. urtearen bukaeran hizkuntza ohituren aldatetan pauso garrantzitsuak eman ziren **Euskaraldia: 11 egun euskaraz** ekimenaren baitan. 2019-2020 urte bitartean egingo den bigarren edizioan pauso berriak emango ditugu eta, norbanakoez ez ezik, entitateek ere neurriak hartuko dituzte euren eremuko langile, bazkide edota kideen hizkuntza praktika berriak bultzatzeko. Beraz, norbanakoen erabaki esparruan arizetik, taldeetara ere egingo da salto bigarren edizio honetan.

Euskaraldiaren edizio berrirako lanean hasteko ordua heldu zaigu jada eta honetarako herri batzordea aktibatzea ezinbestekoa zaigu. Lanean hasi aurretik, ordea, Kike Amonarriz izango dugu gurean aurreko urteko Euskaraldiaren emaitzak aztertu eta aurtengo helburuak azaltzen. Hitzordua azaroaren 29an (ostirala) izango da, Agirre jauregiko ispiluen gelan, 18:30ean. Bertan,



Amonarrizek “Euskaraldia 2019/2020 Gehiago eta Sakonago” izeneko hitzaldua eskainiko du.

Gutun honen bitartez, saio honetara etortzeko gonbidapena luzatu nahi dizugu. Euskaraldiaren lehengo edizioan pauso handia egin genuen aurrera, baina oraindik badugu bidea egiteko.

Zabaldu deialdia zure inguruan eta egin dezagun bidea elkarrekin.

Debako Euskaraldia Taldea

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko batzar irekia

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, ohi bezala, datorren abenduaren 24an (asteartea) izango da, eguerdi partean. Uste baino gertuago dago hitzordua, aldizkari honek argia ikusi orduko azaroaren amaieran egongo baikara; eta, hortaz jabetuta, guztia txukun antolatzeko helburuz egingo dugun bilera irekira gonbidatu nahi zaituztegu.

Batzarra datorren abenduaren 2an (astelehena) egingo da,

19:00etan, Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoan (Iifar kalean). Ekitaldia ahalik eta irekiena izan dadin, prestaketetan parte hartu nahi duzuen herritar guzti-guztiak zaudete bilerara gonbidatuta; guztion ekarpenak izango dira aberasgarri.

Beraz, badakizue, animatu, etorri bilerara eta zabaldu deialdia zuen inguruan!

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko lantaldea



REXU ARAKISTAIN

Orbela

Udazkenean normala da orbela ikustea leku gehienetan. Baina zer da orbela?

Hosto lehorrak zuhaitzetik lurrera erortzen direnean sortzen da orbela.

Zuhaitz hostoen arabera, kolore, neurri edo usain ezberdina du orbela.

Entzun duzue noizbait “hori orbel herrikoa da?”, esanez bezala... buru arina dela?

Aspaldi batean mendian oso gustuko genuen orbel gainean ibiltzea, eta bere zarata goxoa entzutea: kris-kras, kris-kras!!

Behin gertatutakoa, Aralarren: Saltoka-saltoka, ahuntz baten pare “arin-arin” zihonan bat orbel multzora jausi zen eta kriston kolpea hartu, azpian zegoen haitz koskorra jota, ipur-txontxorrean... Ai ama! ze min! Ez zen goxoa izan; hurrengo udazkenean ere gogoan zeukan!

Hautzaroan, berriz, ezagutu genuen gure herriko Zumardian gizon txiki bat, makila bati puntan iltze bat ipini eta orbela banan-banan biltzen zuena, bere txerrikumeei ohe goxoa egiteko.

Eta kalean? Ifar kalean, adibidez, eliz txoko horretan urtero jira eta buelta zurrunbiloan ezker-eskuin pilatzen da orbela. Inoiz, pertsonok ere orbelen antzera ibili ohi gara. Orbel zurrunbilo hori ikastolarako bidean umeentzako jolasleku polita da. Eta oroitzapenak? Ederrak! Gurasoentzako eta aitona-amonentzako ere bai!



HERRIKOAK BERRIKETAN

ZURRUNBILO UR KIROL ELKARTEA:

“Surfak bizirik jarrai dezala!”

Zurrunbilo Ur Kirol Elkarteak 2001. urtean sortu zen. Garai hartan surfean aritzea debekatuta zegoen hondartza askotan eta surflariak gaizki ikusiak zeuden. Hala ere, Debako surflari talde batek antolatzea erabaki zuen eta, Udalarekin negoziatu ondoren, hark hondartzako lokala lagatzea lortu zuen.

18 urte daramatzagu martxan dagoeneko, ez dira gutxi! Errealitatea gutxitu da: hasierako lau zoro haiek gaur egungo 220 bazkide gara eta jada egonkortuta dagoen kirol elkarteak gazela esan dezakegu. Zurrunbiloko bazkideek surf, bodyboard eta SUP modalitateak praktikatzen ditugu.

Surfa boladan dagoen kirola da, hori ukazina da, eta gero eta pertsona gehiagok praktikatzen dugu. Honen ondorioz, bazkideak eskaerak ere asko ugaritu dira, baina lokalean ez dugu espazio nahikorik eta itzarote-zerrenda bat osatu behar izan dugu. Arazo horri konponbidea bilatzeko lanean ari gara: hondartzan dauden baliabideak aztertu ditugu, zerbitzua hobetzeko bitarte-

koak badaudela ikusi dugu eta badaukagu proposamen bat. Ideia hori aurrera ateratzeko lanketa sakon bat egin behar da Udalarekin eta beste kirol elkarte batzuekin, baina aukerak eta borondatea egon badaude!

“18 urte daramatzagu martxan dagoeneko, ez dira gutxi! Hasieran lau zoro izatetik, gaur egun 220 bazkide izatera pasa gara”

Kirol elkarte bat izanik, herriari ekarpenak egin behar dizkiogula uste dugu. Hori dela eta, azken urte hauetan surfaren presentzia indartzen saiatu gara. Horren adibide da urtean behin antolatzen dugun Zurrunbilo Eguna; herriko txapelketa eta bazkideen afaria egiten dugu egun horretan. Horrez gain, Gipuzkoako Surf Federazioak sortutako Federarte Festivalaren antolaketan aritzen gara

Udalarekin eta beste hainbat eragilerekin batera.

Gizartea aldatzen ari da eta surfean ere aldaketa horiek eman behar direla uste dugu. Horregatik, irabazi asmorik gabeko Emakumeak Surflari proiektuarekin kolaboratzen dugu. Bertan, genero ikuspegitik, emakume, trans eta intersexualentzako surf ikastaroak ematen dira.

Azken urteetan, Euskal Herriko Surf Federazioaren eskutik, Deban Euskal Herriko Surf Zirkuituko proba, Olatu Handien Txapelketa eta Euskal Herriko SUP RACE Txapelketa antolatu dira. Txapelketa horietan Debako hainbat surflarik parte hartu dute. Horien artean, nabarmentzekoa da Bitor Garitaonandia surflari gaztearen ibilbidea. Euskal Herria, Espainia eta Europako txapelketetan lehiatzen ari da, emaitza apartak lortuz. Horregatik, Kalifornian ospatuko den Munduko Junior Txapelketan ordezkari gisa joateko hautatu du Espainiako Selekzioak.

Ikus daitekeen bezala, surfa bizirik dago Deban!



Jose Mari Irusta Mugarzari omenaldia, erail zuteneko 75. urteurrenean



Azaroaren 13an bete dira 75 urte Jose Mari Irusta Mugarza debarra erail zutenetik, eta urtemuga ez da oharkabeen pasa Deban eta Itziarren; ekimen ezberdinez osatutako egitaraua antolatu dute Debako Udalak, Itziarko Auzo Udalak, eta Amicail Mauthausen, La Ilusión eta Debadezine elkarteek.

Azaroaren 13tik 20ra bitartean, adibidez, erakusketa bat egon da ikusgai Debako udaletxeko pleno aretoan -hilaren 23an eta 24an, Itziarko Burugorri Gainean-. Hilaren 14an hitzaldia eskaini zuen Etxahun Galparsorok "Euskaldunak eta Mauthausen" izenburupean, eta azaroaren 17an ekitaldia egin zen eguerdian Lersundi eta San Roke kaleen arteko bidegurutzean; bertan ezarri dute Jose Mari Irusta Mugarzaren izena daraman plakadun galtzada-harria. Arratsaldean, aldiz, "El hijo de Saúl" filmaren inguruko zine foruma egin zen Kultur Elkartearen. Hilaren 22an, bestalde, Fermin Ezkietak "La fuga del fuerte de Ezkaba" hitzaldia eskainiko du Itziarko Burugorri Gainean.

36 urterekin eraila

Duela hilabete gutxi argitaratu zen "Deba 1936-1945. Giza Eskubideen Zapalketa eta Errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan" liburuan jasota daude Irustaren bizitzaren eta ibilbidearen nondik norakoak.

Bertan bildutako zenbait datu gogorazterera datoz ondoko lerroak ere:

Jose Mari Irusta Deban jaio zen, 1908ko azaroaren 17an. Banco Guipuzcoanon egin zuen lan eta gerra zibilak eztanda egin zuenean, Fronte Popularreko Finantza Komisario izan zen; bere funtzioa, beraz, errepublikako administrazioaren diru eta kapitalak kudeatzea izan zen. Horrez gain, Eusko Gudarostea eratu zenean,



Azkatasuna Batailoian eman zuen izena, EAE-ANV alderdiaren batailoian, alderdi horretara afiliatua baitzegoen. Hori dela eta, Gipuzkoa erortzearekin batera, Bilbora joan zen, ondoren Santanderrera eta azkenik Baionara ihes egin zuen, bere jardun politikoa zela eta frankistek egin ziezaioketenaren beldur.

Harrezkero, Bidasoaren beste aldean geratzea erabaki zuen Irustak eta ez zen itzuli, gerra amaitua egon arren. 1944an, momenturen batean atxilotua izan zen eta Bordeleko Stalag batera eraman zuten naziek, urte bereko abuztuaren 9an.

Dachaura eraman zuten preso eta abuztuaren 28an iritsi zen, baina irailaren erdialdean Mauthauseneko (Austria) kontzentrazio esparrura eraman zuten. Bertan, lekualdaketa berri bat izan zuen, Melkeko kontzentrazio esparrura eraman baitzuten gero -azken hori Mauthauseneko gehigarri bat zen-. Azken datuen arabera, bertan hil zen, 1944ko azaroaren 13an.



EIDER ZULAIKA

Kejia ta abarra

Azaroa hastearekin bat eguraldi aldaketa. Orain arte uda giroa gozatzeko parada izan dugu; nahiz eta tarteka euria egin, tenperatura goxoa izan dugu. Baina ez ginen gustura. Hotza sentitu nahi genuen goizean jaikitzean, eta ez buruko mina ekartzen duen hego-haize sapa hori. "Oin e badeu kejia!!".

Urriko azken egandean, ordu aldaketak ere zer esana ekarri zuen nire inguruan. Neguko ordutegia kendu beharko litzatekeela, arratsaldeko seietarako ilundu egiten zuela. Dagoeneko neguko errutinarekin hasi beharko ginela... Goizean lehenago argitzeak, antza, ez du jarraitzaile gehiegi, nahiz eta eguzki ordura gehiago gerturatu.

Perretxiko eta onddoak biltzera joateko afizioa dutenak ere kexu ziren. Euri gehiago egin behar duela, hego-haize honek mendiak lehor utzi dituela, eguna moztearekin batera nekezagoa dela onddoak aurkitzea... Epel eta heze, perretxikoen gutizia dutenek eskatzen dutena. "Hori re, ba al deu".

Mendi bueltaxka bat egitera irten eta harrituta, lehor-lehor daudelako gure mendi maiteak. Euri eske bueltatzen gara etxera, gure inguruko mendietako bidezidoretan hautsa ikusi dugulako!

Telebista edo irratia piztearekin batera, hauteskundeak nonahi!! Urte berean bi aldiz ez, mesedez!! Urte osoa kanpaina alu honekin. Gainera hilaren 10ean botoa ematera joan behar! Behobia-Donostia ikustera joateko plana egina neukanean! Eskerrak hauteskunde mahaian egotea ez zaidan tokatu, bestela igande osoa alperrik galduta!

Hauteskundeez gain, sukaldaritza programak agertzen dira toki guztietan! Hau da hau! zenbat eta lan gutxiago hartu sukaldetan aritzeko, orduan eta programa gehiago daude horren inguruan!! Antza, nahiz eta praktikan ez jarri, denok ondo ikasi dugu sukaldetan zer egin litekeen. Ez omen du euria denon gustura sekula egingo!!

Jardunaldi feministak Durangon eta Lolita Chávezen bisita Debara



Azaroaren 1, 2 eta 3an Durangon izan ginen Debako Talde Feministako kideok, Euskal Herriko bosgarren Jardunaldi Feministetan. Itzela izan zen. Ikusi zen salda badagoela, eta gatza eta piperra gehitzeko prest dauden talde eta emakume askoren testigantzak entzun ahal izan genituen.

Joan ginen, eta ondorio, galdera eta erronka askorekin itzuli gara. Lehenengoa eta nagusia, feminismoaz hitz egin ordez, feminismoez hitz egiteko ordua dela; agerian geratu baitzen zenbat korrante eta ñabardura dauden borroka feministaren barruan. Generoaz gain badaude diskriminazioa gorpuzten duten beste egitura batzuk, izan arraza, klase soziala, sexualitatea, erlijioa, aniztasun funtzionala...

Bestetik, bertan entzun genuen ideia berreskuratuz, "ez dago gorputzik gabeko errealiterik, ezta errealiterik sortzen ez duen gorputzik ere". Horrela, gorputzek gure gizartean esanahiak sortzeko duten potentzialtasunaz jabetzera bultzatu gintuzten; gorputz, desio eta sexualitate aniztasuna aldarrikatuz.

Hala ere, azpimarratu nahi dugu eztabaida eta ezinegon handiena sortu zuen gaia feminismo dekolonialak plazaratu zuena izan zela. Hiru dominazio sistemaz osatutako erreprezioaz hitz egiten aritu ziren mahai-inguruan: patriarkala, koloniala eta kapitalista. Korrante feminista nagusiei kritika egiten die, hauen izaera eurozentrismoa dela medio, mugimendu hauek presente ez dauden gaiak seinatu eta nabarmenduz; herrialde askotan, emakumeen eta hauen gorputzen gain, presente dauden historia kolonialaren ondorioak, hain zuzen ere.

Gaiarekin jarraituz, azaroaren 7an Deban izan genuen Lolita Chávezek ere bazuen horri buruz zer esana. Chávez Guatemalako K'iche herrien kontseiluko liderra da. Bizia, natura, lurra, lurraldea eta emakumeen duintasuna ditu borrokaren ildo. Bere territorioaren defentsa lanak oligarkia eta transnazionalak zuzenean bere aurka etortzea ekarri zuen; hori dela eta,

Euskal Herrian erbesteratuta bizi da duela bi urtetatik.

Transnazionalak bere lurraldean egiten ari diren suntsiketaren aurrean, Europaren isiltasuna salatzen du. Solidaritateaz hitz egitea ez da nahikoa, elkarrekikotasunetik lan egiteko ardura dugu; hau da, gure bizi eredu eta egunerokotasuneko jokamoldeek besteengan (herrialde nahiz pertsona) duten ondorioez jabetu, kuestionatu eta nork bere jokamoldeak transformatzeko ardura dugu; ahaztu gabe euskal enpresek duten papera aipatutako lurraldeetan.

Laburbilduz, esan emakume izatea nahikoa bada zapalduen kolektibo izateko, honi beltza, ijito, latindar, trans, bollera, aniztasun funtzionala... gehituz gero, diskriminazio gogorragoak gorpuzten direla. Beraz, lan egiteko garaia da, kritiko izan eta emakume txuri eta mendebaldar izanik ditugun pribilegioak ardura bihurtu, emakume guztien ongizatea bermatzeko helburuz.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiogu Lumaltik-i, hitzaldia posible egiteagatik eta, bestetik, halako hausnarketak egitea ahalbidetzen duten kolektibo zein norbanako guztiei. Kritiko izateak eta gure pentsamenduak deseraikitzekeo prozesuak poliki-poliki borroka honen ildoak finkatzea ahalbidetzen baitute.

Argi dugu! Feminismoa antikapitalista eta antiarrazista izango da, edo ez da izango!

Jardunaldietan jorratu ziren gaien inguruko interesa izanez gero, YouTube eskuragarri daude hiru egunetako grabazioak; "LIVE- SALDA BADAGO" jarriz topa dezakezue. Eta hona hemen Argiak Lolita Chávezi egindako elkarrizketa interesgarria: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2593/lolita-chavez-kitxe-herrien-kontseiluko-buru>.

Azaroaren 25aren bueltan antolatutako ekimenetan parte hartzeko deia egin dute



Ekimen ezberdinak antolatu dira aurten ere Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan, Debako Udaleko Berdintasun Sailaren ekimenez, eta hitzorduekin bat egiteko deia egin diete herritarrei.

Hilaren 17an egin zen lehenbiziko hitzordua; Debako kontalariak berdintasunean oinarritutako ipuin kontaketa saioa eskaini zieten herriko haurrei, Agirre jauregian. Eta azaroaren 22an leku berean emango zaio jarraipena egitarauari, gazteei zuzendutako ikus-entzunezko Beldur Barik lehiaketari dagozkion sariak banatuko baitituzte arratsaldean (18:30ean).



Azaroaren 24an (igandea), *“Bar Bahar entre dos mundos”* (Israel, 2016) filma proiektatuko dute, 19:00etan, Kultur Elkartean. Ondoren, Irudi Biziak elkarteko kide batek dinamizatutako solasaldia egingo da.

Urtero legez, azaroaren 25ean (astelehena) ohiko agerraldia deitu dute Foruen plazan, 19:00etan. Eta hilaren 26rako (asteartea) dago aurreikusita aurtengo egitarauaren baitan antolatutako azken hitzordua: *“Erradikalak ginen”* bertso-antzerki emanaldia egingo da 19:00etan Agirre jauregiko ispiluen gelan, Lanku Bertso Zerbitzuak enpresaren eskutik.

Alejandro Labaka eta Ines Arangoren lana ezagutarazi dute “Amazonia eta Deba” zikloan



Debako Andre Maria Parrokiako Kooperazio Taldeak antolatutako “Amazonia eta Deba” zikloan, Alejandro Labaka eta Ines Arangoren lanaren berri eman dute azaroan. Amazoniako herri indigenen defentsaren alde jokatu zuten bi pertsona horien bizitza eta ibilbidea ezagutarazi dute bideoforum eta erakusketa baten bitartez. Labaka Aguarico-ko Gotzia zela hil zuten, Arango mojarekin batera; Ekuadorreko Amazoniako



oihanean tribuen arteko bitartekaritza zebiltzala izan zen erailketa, 1987ko uztailaren 21ean, petroleo konpainien gatazka tarteko.



GILEN GARCIA

Ez adiorik

Aitortu behar dizuet inoiz baino gehiago kostatu zaidala zutabe hau idaztea. Urte asko dira txoko honetatik zuekin, *Berriketan*-eko irakurleekin, gogoetak, kezak eta beste partekatzen ditudala eta orain agur esatea zaila egiten zait. Ordenagailu aurrean jarri arte, ez naiz ohartu zenbat bizipen izan ditudan, zenbat aldatu zaidan bizitza tarte honetan lehen testua argitaratu nuenetik.

Herriarekin lotura mantentzeko ere balio izan dit *Berriketan*-ek, Euskal Herritik kanpo bizi izan naizen urteetan. Eta benetan estimatzen dut.

Nire bizitzak beste bira bat eman du orain dela hilabete batzuk, jakingo duzue. Debako alkate izateko ohorea dut joan den ekainaz gerostik. Eta, hain zuzen ere, ardura berri hori dela medio, agur esan beharrean nago. Hau izango da tarte honetan irakurriko nauzuen azken aldia (datozen lau urteetan behintzat).

Ardura berri horrek eginkizun berriak ekarri dizkit eta, ondorioz, aurretik hartutako beste konpromiso batzuk etetera bultzatuta ikusi dut nire burua. Beste talaia batzuk izango ditut hemendik aurrera debarrekin hitz egiteko. Nahikoa entzungo nauzue bestela ere tarte hau ere baliatzen jarraitzeko eta ez zaituztet nekatu nahi!

Beste norbaitek beteko du tarte hau eta, begira, iritzi berriak ezagutzeko aukera izango dugu. Nire ekarpena aldizkari honi beste modu batera egingo diot aurrerantzean, dudan ardurarekin dagokidana. Behar-beharrezkoak dira *Berriketan* bezalako proiektuak, herritik sortutakoak eta euskarazkoak, nire iritzia horretan ez da aldatu.

Amaitzeko, eskerrik asko *Berriketan* eta Zuhatzako lagunei emandako aukeragatik eta eskerrik asko irakurle guztiei ere, aldizkaria babestuz eta irakurritz nire ekarpenak egitea posible egin duzuelako. Eta noski, idatzitakoak irakurtzeagatik ere bai!



ARITZ LOIOLA
prentsa argazkilaria

“Presio handiko lana da hau eta baldintzak ez dira onak; lanpostua ez bazaizu gustatzen, hemen ez duzu irauten”

Kosta egiten zaio, oraindik ere, bere burua argazkilari bezala aurkeztea, baina sarri ikusten ditugu berak egindako argazkiak Euskal Herriko zenbait hedabidetan (Berria, Gara...). Aritz Loiolak fotokazetaritzan dihardu gehienbat azken urteotan; batetik bestera ibiltzen da, kamera beti zintzilik, orotariko albisteak ilustratzeko irudiak ateratzen. Mungian bizi da gaur egun, eta Debara bisitan etorri den egun batean jarri digu elkarrizketa honetarako hitzordua. Behingoagatik, berari ateratako argazkiak eta hitzak dira oraingoan albiste eta protagonista.

Nolatan zabilta prentsa argazkilari?

Argazkilaritza ikasten hasi nintzenean, prentsa edo fotokazetaritza lantzen hasi ginen eta segituan “engantxatu” ninduen. Barrutik gehien mugitzen ninduen zen; zalantza asko sortzen zizkidan, argazkilari ezagunen lanak ikusi eta pila bat harritzen nintzen ikustean nola iritsi zaitezkeen jendearekin halako erlazio estuak izatera edo momentu batzuetan ikusezin izatera. Nola lortzen da hori? Irakasgaia gustuko genuen kide batzuk elkartu ginen eta hor ibiltzen ginen elkar elikatzen; ikusi duzu hau? eta beste hau? Azkenean, agian ez dira egunerokotasunean egunkarietan ikusten diren lanak, sakonagoak dira, denbora gehiago behar dutenak... hori gustatzen zait, eta gaur egun ere pila bat gozaten dut horrekin.

Zein izan da orain arteko ibilbidea?

Diseinu grafikoa ikasi nuen. Bi urtez egon nintzen lanean eta han nenbela hasi zitzaidan argazkilaritza gustatzen. Lana utzi eta argazkilaritza ikastea erabaki

nuen. David Aprea horretan zebilen eta berak ere animatu ninduen; eskolaren erreferentziak eman zizkidan eta hara joan nintzen ikastera. Bi urtez egon nintzen ikasten, fotokazetaritzan lan egin nahi nuela ikusi nuen eta honetan bukatu dut. Alperra naiz gauzak nire kabuz egiten hasteko, eta prentsak behartu egiten zaitu egunero zerbait berria egitera, zerbait ezberdina... Hortaz konturatu nintzenean ikusi nuen prentsan nire burua behartu egingo nuela, eta horrek lan egiten lagunduko zidala.

Zure kabuz egiten duzu lan? Alegia, argazkilari freelance-a zara ala agentzia bateko soldatapeko langilea? Azalduigu-zu pixka bat, mesedez.

Freelance naiz, teoriak hori esaten du; nire bezero handiena Argazki Press agentzia da eta lan gehienak harentzat egiten ditut, nahiz eta batzuetan beste lantxo batzuk ere irteten diren eta haiek ere egiten ditudan. Enkarguz egiten dugu lan gehienetan. Freelance esatea oso ponpo-

xoa da, baina era berean oso lotuta dago prekarietatearekin eta baldintza eskasekin... estutasunak ere izaten ditugu.

Prentsa argazkiliariaren motxilan omen doaz presak, presioa, emozioa, estresa, nekea... arriskuak ere batzuetan. Pisu larregi hartzen al du zure motxilak?

Bai. Igual ez dirudi, baina ni berez oso urduria naiz eta azkenean tentsio handiko lana da hau. “Errusiar mendi” bat bezalako da; zain zaude, edo oso denbora gutxian lan egin behar duzu, zerbait atera, atzetik deika dituzu lana azkar bidali behar duzula esaten... Uste dut denborarekin erlatibizatzen eta ohitzen joaten zarela, baina presio handiko lana da. Azkenean, lanpostua gustatzen zaizu edo hemen ez duzu irauten; presio orokorra da, baldintzak ez dira onak izaten. Orokorrean, estatu mailan, Espainia mailan, fotokazetaritza ez dago baloratua. Kanpoan argazkiliariak gehiago baloratzen dituzte; baldintza hobekien lanerako, presio gutxiago. Presioa oso lotuta baitago baldintzekin ere, ez

duzulako oinarri egonkor bat eta beti dantzaz zabiltzalako: 15 egunean ez dizute deitzen lan egiteko –eta buruari ematen diozu halakoetan–, eta gero bigarren hamabostaldian agian ez zara geratzen eta egun librerik ere ez duzu.

Gertaera non, argazkilaria gertu. Edozeri egingo zenioke argazki bat? Ala badago sekula landuko ez zenukeen gai edo irudi estiloren bat, adibidez?

Orokorrean ez, baina ez zait gustatzen “amarillismoa” edo alferrikako morboa. Azkenean berri bat ilustratu behar duzu, argazkiak atera behar dituzu, baina moduak eta moduak daude hori egiteko. Gogoan dut Sestaon bere bikoteak neska bat hil zuela eta oso markatuta daukat: hor bai iritsi nintzen muga batera. (...) Biktimen familiarekin edo beste aldean dagoenarekin enpatia pixka bat izan behar duzu, enpatia eta errespetua ere bai.

Zein esparrutan aritzen zara erosoan? Zelako argazkiak dituzu gustuko?

Arlo soziala gustatzen zait, jendearekin aritzea. Elkarrizketak ere gustura egiten ditut, baina gogoko dut beti bigarren plano batean egotea, ikusezin bilakatzea. Ez zait gustatzen zerbait posatua izatea; batzuetan egin behar da ez dagoelako beste aukerarik, baina gusturen sentitzen naiz hor egongo ez banintz bezala egiten dudanean lan. Gure kasuan, ez dugu denborarik izaten, baina polita da gai bati denbora eman eta insistitzea; egun ezberdinetan joan, gaietan sakondu, jendea ezagutu... hori da gusturen egiten dudana, baina ez da askotan tokatzen (*kar-kar!*).

Artista oholtzan bezala, zu ere urduri jartzen al zara kamera hartu eta lanean hasi behar zarenean? Pulsu onekoa al zara?

Oso urduri jartzen naiz, batez ere presiopean, dakidanean zerbait garrantzitsua dela, hurrengo egunean egunkarian tamaina handian joango dela edo antzekoetan. Batzuetan perspektiba ere galdu izan dut; lana aurrera ateratzen dut gehienetan, baina buru gabe ere ibili izan naiz, gairitu egin izan nau presioak. Ikasten noa politikopoliki, gero eta hobeto daramat, baina batzuetan ezin da ekidin; presioagatik eta gaiak ukitzen nauenean, adibidez, beti noa urduri. Kuriosoa da, dena den, halakoetan gehiago sakontzen duzu, agian beste irudi mota batzuk egiten dituzu. Eta hori ere gustatzen zait. Gustuko dut adrenalina ere.

“Argazki on batek zerbait kontatu eta transmititu behar dizu; indiferente uzten bazaitu, ez da ona”

Zein da ofizio honen alderik gogorrena?

Tentsio momentuek sortutako estutasunak eta baldintza txarrak, lasaitasun pixka bat ez izatea hilabete amaieran. Batzuetan presioarekin gaizki ibiltzen gara, nahiz eta beste batzuetan presio horrek lagundu ere egiten digun.

Eta ederrena?

Jende edo historia interesgarriak ezagutzea, pertsonetan sakontzea... hori da ni gehien bete edo asetzen nauena azkenean.

Labur-labur, Aritz, zer da argazki on bat? Zer behar du nahitaez?

Zerbait transmititu behar dizu, zerbait kontatu eta transmititu. Indiferente uzten zaituen irudi bat ez da argazki on bat. Teknikoki ondo eginda egon daiteke, igual konposizioa ere ondo egongo da eta argazki zuzen bat izango da, baina ez argazki on bat.

“Ez zait gustatzen alferrikako morboa. Moduak eta moduak daude berri bat ilustratu ahal izateko”

Eta jakingo al zenuke esaten zein den zuk ateratako irudirik preziatuena?

Aitaren seriean atera nuen bat aukeratu nuke. Niretzako, gehien transmititzen duena da agian. Ikasten bukatu nuen eta aita gaixotu zen segidan, eta ikasi berri, gauzak egiteko gogoarekin... pentsatu nuen: lan pertsonal bat egin nahi badut, hau baino aukera hoberik ez daukat. Argazkiak ateratzen hasi nintzen, erregistratzen... gero konturatu nintzen niretzako terapeutikoa ere izan zela.

Horixe izan da egin dudana lan pertsonalena, ukitu nauelako, ez delako izan enkargu bat... Argazkian nire burua ikusten dut, nire begirada ikusten dut eta momentu hartako egoera ere islatzen du; benetako lan bat da azkenean, serie bat, egin dudana

artistikoena. Oso hotza naiz nire argazkiak aukeratzekoan, eta autokritikoa; eta kuriosoa da, baina irudi hori erakutsi dudanean, jendeak ere esan izan dit argazkiak zerbait baduela, transmititu egiten duela... argazki on bat da orduan.

Ezin gaur egungo argazkigintzaz hitz egin digitalizazioa aipatu gabe... Zer deritzozu? Nola ikusten duzu panorama?

Bere gauza onak eta txarrak ekarri ditu, baina ni digitalaren semea naiz. Digitalean ikasi dut, analogikoan ere ikasi genuen, baina azkenean ni digitalarekin hasi naiz eta hor jarraitzen dut. Egia da azkartasun handia ekarri duela, zentzu guztietan: emaitza oso azkar ikusten da, partekatu egin daiteke... Egia da agian magia pixka bat kentzen diola argazkilaritzari: analogikoan dena doa motelago, laborategiko magia hori ere ez dago hemen...

“Gaur egun guztiok izan gaitzke argazkilaria”. Bat al zatorz baieztapenarekin?

Ez dakit, niri ere kostatzen zait argazkilaria naizela esatea... Irudiak edozeinek atera ditzake, eta irudi politik eta teknikoki ondo daudenak, baina azkenean lan bat aurkeztea, serie bat, denak koherentzia bat izatea bisualki, zerbait kontatzen eta transmititzen dizuna... hori nik uste dut edozeinek ezin duela egin.

Zer asmo duzu aurrera begira? Lan edo proiektu berririk bai esku artean?

Prentsarekin jarraitu nahi dut, gustura nago. Egia da beti daukadala gogoia zerbait egiteko, proiektu pertsonalen bat edo halako zerbait, hartu eta sakondu... eta horretarako beti dut gogoia. Baina esan dizut pixka bat alperra naizela, kosta egiten zait, duda asko izaten ditut, erabakiak hartzea kostatzen zait. Baina, beno, egunen batean zerbait egingo dudala uste dut.

Orain urtebete inguru zure lanak ikusgai egon ziren Donostiako erakusketa kolektibo batean. Halako beste aukerarik izango al duzu laster?

Webgune bat badut, baina prentsarako lanak eta halakoak dauzkat bertan, ea lanen bat irteten den edo... Erakusketena gustatzen zait, Donostian oso gustura egon nintzen, eta gustatuko litzaidake lan pertsonalen bat, sakontasuneko, denborarekin egina... zintzilikatzea noizbait. Baina beno, ikusiko da...

Izaro Aulestiarte

Hilerrri berriko obrak behin-behinean gelditzeko agindua eman zuen Debako udal gobernua azaroaren 11n

Aurreko legegaldian Artzabalen abiatu ziren obren inguruan Ingurumen Fiskaltzak jarritako salaketaren aurrean, "zuhurtziaz" jokatu nahi duela nabarmendu zuen egungo udal gobernua urgentziazko prentsaurrekoan

"Zuhurtziaz jokatu nahi dugulako, Artzabalgo hilerrri berriko obrak behin-behinean gelditzeko agindua eman nuen atzo", esan zuen Gilen Garcia Debako alkatea azaroaren 12an egin zuen urgentziazko agerraldian. Itziar Irizar alkateordearekin aritu zen Garcia, Ingurumen Fiskaltzak hilerrri berriaren obren inguruan egindako salaketaren berri emateko.



Itziar Irizarrek azaldu zituen proiektuaren aurrekariak. Gogorarazi zuenez, aspalditik dator, 25 urte ingurutik, Deban hilerrri berria egiteko beharra. Aurreko legegintzaldi amaieran hasi zituzten obrak, 2019ko ekainaren hasieran, hain zuzen (2018ko abenduan onartu zen proiektua, eta 2019ko apirila bukaeran esleipena).

Ez da proiektu honen aurka egin den salaketa bakarra. Udal agintariak jakinarazi zuten, aurretik izan dira Mutrikuko Natur Taldearen eta Debako bizilagun baten salaketa, ustez ingurumenaren kontra egiten duelako. Ondoren etorri da Ingurumen Fiskaltzaren ikerketa.

"Udal honen idazkaritzaren kolaborazioarekin, Ingurumen Fiskaltzan galdetu genuen ea obra gelditu behar genuen eta erantzuna ezezkoa izan zen", azaldu zuen Irizarrek. Baina orain egoera aldatu egin dela ohartarazi zuen: "Ingurumen Fiskaltzak 8 pertsona salatu ditu Eibarko auzitegian ingurumenaren kontrako delitua (Kode Penalaren 329 artikulua) egin dutelakoan. Aurreko legegaldiko Hirigintza Batzordeko kideak dira salatu dituzten per-

tsanak. Horien artean aurreko legegintzaldiko alkatea, duela gutxi arte udal idazkaria izan dena, udal arkitektoa...".

"Delitua larria da, ondorio penalak ekar ditzake -nabarmendu zuen alkateak-. Eta salaketa honek obraren beraren legezkotasuna zalantzan jarri du. Beraz, idazkariari eskatutako txostena aztertuta, eta gure zerbitzu juridikoekin kontrastea egin eta gero, udal gobernu hau obrak behin-behinean gelditzera behartuta dago, debarren interesek kalte handiagoak paira ez ditzaten. Modu ordenatuan egingo dugu, hortaz, prozesua, udal zerbitzu eta enpresarekin koordinatuta".

Eta zera ere gogoratu zuen, bide batez: "Lehendik ere esana dugu udal gobernu honek gobernu ardura hartu zuenean topatu zuen egoera uste baino okerragoa zela". Azaldu zuen, halaber, espediente batzuk akatsak dituztela ikusten ari direla, baina hilerrikoa "oso akats larritz beteta dagoela konprobatu" dutela orain, eta hori ezin dutela horrela utzi. "Udal gobernu honek gauzak ondo egin nahi ditu, eta egingo ditu. Ez dugu korrika eta presaka aritu nahi legezko diren baimenik gabe".

Aurrerantzean ere nola lan egin nahi duten azaldu zuen. "Udal gobernu hau arduratsua da, herritarren konfiantza eskuratu du eta Deba berri baten oinarriak jartzeko ahalgintza sendoa egingo dugu. Etorkizuna landuko dugu, bai, baina oraina ahaztu gabe, egunero-egunero lanean nekaezin jarraituko dugu, debarren bizi-kalitatean eta ongizatean sakontzea erronka handia delako eta horri erantzuteko udal gobernu prestua eta prestatua dutilako", alkatearen esanetan.

Amaitzeko, adierazi zuen aurreko legegalditik datozen proiektuak zuzenduko dituztela "zuzendu daitezkeen neurrian", eta berriei helduko dietela.

Urgentziazko plenorako deialdia egin zen hilaren 18rako

Hilerrri berriko obrak behin-behinean gelditzeko erabakia azaroaren 12an (aste-arte) iragarri zuen udal gobernuak, eta hiru egun beranduago, hilaren 15ean, egoera aztertzeko urgentziazko plenoa deitu zuen azaroaren 18rako (astelehena).

Plenorako deialdi horrekin batera, hilerrriko obren gaiarekin lotutako azken berri batzuk ere aipatzen zituen udal gobernuak bere oharrean. Hau da, hitzez hitz, komunikabideok jasotako deialdian azaldu zuena:

"Jakina denez, Eibarko Epaitegian jarritako salaketa horrek juridikoki zalantzak sortu ditu lanen legezkotasunaren inguruan obrak hasteko URAREN baime-

nik ez dagoelako, eta ondorioz udalak behin-behinean obrak gelditzea erabaki du gauzak legearen barruan egin nahi dituelako, udal gobernuak gauzak beti ondo egiteko asmoa duelako.

Erabaki hau eta gero, eta egoera bideratu nahian, Udalak URA Agentziaren baitan egindako gestioen ostean, eta ez lehenago, URA Agentziak txosten bat bidali dio udalari hainbat eskakizun egiten obrari aldeko txostena eman ahal izateko. Une honetan zeregin honetan ari da udala, obrak legezatuak daudenean lehenbailehen hasteko asmoa duelako, udal gobernu hilerrri berriaren proiektuaren alde dagoelako.

Bide batez, zazpi langileren kontrako salaketaren berri izan duenetik udal gobernu pertsona horiei babes juridikoa nola eman aztertzen aritu da eta EUDELEkin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta zerbitzu juridikoekin kontrastatu eta gero, dagokien babes juridikoa eskainiko diela erabaki du udal gobernuak.

Hau guztia dela eta, eta obrak behin-behinean geldirik daudenez, udal gobernuak urgentziazko plenoa deitu du udal gobernuak hartutako erabakia alderdi guztien artean berresteko, edota erabaki berririk hartzea erabakiko balitz, erabaki berria plenoan hartzeko".

Erabakiaren aurka agertu dira Debarren Ahotsa eta EAJ

Udal gobernuak prentsaurrekoa egin eta pare bat egun beranduago, **azaroaren 14an**, Debarren Ahotsak eta EAJk ondoko idatzia plazaratu zuten. Hilaren 15ean, aldiz, bi alderdietako kideek agerraldia egin zuten euren iritzia jendaurrean azaltzeko.

“Debako hilerri berriaren inguruan izan diren azken gertaeren aurrean eta prentsan, Udalaren web-orrian eta sare sozialetan argitaratutakoa ikusita, DA eta PNV-EAJk honakoa salatu nahi dugu:

1.-Lanak gelditzeko erabakia aho bakarrez hartu duela egungo alkate den Gilen Garcia Boyrak.

2.-Erabaki horrek, lanak bertan behera uzteko gomendioa egiten zuen jarduneko Debako Udaleko idazkariaren txosten juridikoa baino ez duela kontuan izan. Horretarako arrazoiak, URArekin igorri ez duen aldeko txostena falta izana.

Azpinarratu nahi dugu, egungo Udaletxeak eskatutako azterketa geologikoa bat dagoela, eta bertan, hilerriko lanek ez dutela ingurumenean kalterik sortzen adierazten da.

3.-Ez direla kontuan hartu gainerako alderdien bozeramaleen iritzia eta gomendioak, erabaki hau Hirigintza Batzordeko bilera egin ondoren hartzeko gomendatzen zutenak. Prentsaurrekoa eman, alkatearen dekretua web-orrian eta sare sozialetan argitaratu eta 3 ordura gauzatu zen bilera.

4.-Erabakia, irizpide teknikoak eta aurreko legegintzaldiko Udaleko zerbitzu juridikoak kontuan izan gabe hartu dela. Hauen arabera, lanek, burutzen ari diren lekurako beharrezko baimen guztiak dituzte. Lanak gelditzeak izan ditzakeen ondorio ekonomikoak ere ez ditu kontuan izan.

5.-Ingurumen Fiskaltzaren ikerketa baliatuz, Gilen Garcia eta bere taldeak, udaletxeko langile eta teknikarien eta aurreko legegintzaldian Hirigintza Batzordea osatzen zuten hiru alderdi politikoetako (DA, EH Bildu eta PNV-EAJ) kideen jokabidea “delitu larritzat” jotzen duen komunikatu bat igorri dutela, fede txarrez egin zutela

aurretik juzgatuz.

6.-Kaltetutako langileak, nahiz Hirigintza Batzordeko kideak, erabateko babesgabetasunean eta defentsagabezia utzi dituztela, instituzio-erantzukizuna bere gain hartu gabe eta defentsa juridikoa eman gabe. Honek, Debako Udaleko langileen defentsaren eta antolamenduaren inguruan esaten dutena ezeztatzen du.

7.-Debako herria nahasteko eta mezu faltsuak jaurtitzeko helbuarekin ari direla Udaleko web-orria eta sare sozialak erabiltzen. Behin eta berriz gertatzen ari den kontua da hau.


Honegatik guztiagatik, Gilen Garcia alkatearen jendaurreko zuzenketa eskatzen dugu, eta langileen eta aurreko Hirigintza Batzordeko kideen defentsa ziurta dezala. Aurreko legegintzaldiko gobernu taldeko kideei aipamena behin eta berriz egiten dituen edukiak, sare sozialetatik eta Udalaren webgunetik ken ditzala.

Uste dugu, nahiz ekintza ezagatik, nahiz nahita, ez direla kudeaketak behar besteko azkartasunez egiten ari, eta gobernuan dagoen alderdia arazoa erabiltzen ari dela eta indar handiagoa jartzen ari dela Udaleko langileen eta beste alderdietako politikarien gaineko gezurren bitartez interes politikoa lortzen, gai hau behin betiko argitzeko URArekin harremanak arintzen baino. Uste dugu erantzukizuna eta agintaritzaren ona une zailetan azaleratu behar direla batez ere, eta Gilen Garcia eta bere taldea bide okerretik dabiltzala, langileen, kideen eta beraien adostasun, akordio eta lankidetzaren diskurtsoak mespretxatuz.

Hau ez da bidea!!!!”.



EAJk jaso ditu boto gehien Deban, Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan



1.247 boto jasota, EAJ izan da alderdirik bozkatuena berriz ere Espainiako Kongresurako hauteskundeetan, Deban eta Itziarren (botoen %40,17). Apirillean gertatu zen bezalaxe, EH Bildu izan da bigarren indarra, 1.037 botorekin (%33,41), eta Elkarrekin Podemos hirugarrena, 416 botorekin (%13,40). Arreta Itziarko hautes barrutiko emaitzetan jarriz gero, ordea, EH Bildu nagusitu da, EAJri 77 botoko alde aterata.

Apirilaren 28an egin ziren Espainiako Gorteetarako hauteskundeak eta azaroaren 10ekoak alderatuta, aldaketa nabarmenik ez da izan geurean. Hiru alderdi bozkatueneren artean, adibidez, gora egin duen bakarra EH Bildu da. Koalizio abertzaleak 47 boto irabazi ditu, eta gainerako biek behera egin dute. EAJk 46 boto galdu ditu, eta Elkarrekin Podemosek 71.

Bestalde, PSEk 273 boto lortu ditu (apirillean, 312 bildu zituen), PPK 60 (apirillean baino bi gehiago), Vox-ek 30 (lehen baino hamar gehiago), Ciudadanos alderdiak 12 (24 gutxiago) eta, besteak beste, 9 biztanlek Pacmaren alde egin dute. Boto zuriak ere izan dira, 14, eta bi gutxiago izan dira baliogabeak.

Apirileko eta azaroko deialdietan izan den parte hartzeari dagokionean, ia hiru puntu egin du behera orain. Erroldaren %73k eman du botoa; alegia, Deban eta Itziarren erroldatutako 4.264 biztanle zeuden deituta azaroaren 10ean botoa ematera eta 3.116 hurbildu dira hauteskontzietara.

Espainia mailan, PSOE izan da orain ere irabazle (123 diputatu izango ditu, lehen baino 3 gutxiago). PPK 88 diputatu lortu ditu (lehen baino 22 gehiago) eta Vox geratu da hirugarren (gorakada nabarmena izanik, lehen baino 28 eserleku gehiago lortuta 52 izango baititu aurrerantzean). Laugarren alderdirik indartsuena Unidas Podemos da (35), bosgarren Esquerra Republicana de Catalunya (13) eta seigarren Ciudadanos (10).

Arnasa Gara ekitaldia, Burugorri Gainean

Euskararentzat arnagune diren udalerriei dagokien miresmena, izen ona eta errekonozimendua aitortzea da *Arnasa Gara* kanpainaren helburua. Horretarako, herritarren jabetzea eta ahalduntzea kanpaina honen muinean kokatzeko, pasa den urriaren 27an Itziarren aurkezpen ekitaldia antolatu zuten UEMak eta Auzo Udalak.

“Arnasa Gara” ekimenak hainbat erakunderen bultzada izan du: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Munduari oxigenoa ematen dion eran ematen diote udalerrri euskaldunek euskarari aire berria eta, horrela, Itziarrek eta itziartar guztiek euskararen unibertsoa aberasten dugula argi gelditu zen aurkezpen ekitaldian. Euskararen birrikak dira arnaguneak, bihotzetik ezterrira, eguneroko bizitza gure hizkuntzan egiten denaren erakusle. Diotenez, tximeletaren hegaldi bakar batek munduaren beste puntan zurrumbilo bat sor dezake. Gure herriak euskara zabaltzen duen bezala, gu geu, itziartarrok, arnasa garela erakutsi genuen.

Euskararen arnaguneak dira modu naturalean euskaraz bizi diren udalerriak. Euskararen ezagutza zein erabilera %80 inguruan dituztenak izan ohi dira, oro har, arnaguneak. Itziarren bertan erakusten da euskaraz bizitzea posible dela gaur egun ere, eta hori, euskara bezalako hizkuntza gutxitu batean, oso garrantzitsua da. Herri honetako bizilagun gehiengehienek euskara dute lehen hizkuntza, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen da, oso modu naturalean.

Ekitaldira bertaratu zirenek, EITBk eta Hiru Damatxok ekotzi duten “Kartzela” serie digitalaren bi kapitulu ikusteaz gain, bertan lan egiten duten aktoreekin solasaldi bat izateko aukera izan zuten. Serieak arnaguneetako eztabaida eta bizipenak erdigunean jartzea du helburu. BECen harrapatuta dauden arnaguneetako sei lagun dira istorioaren protagonistak.



Irudiak: Asier Orbea



BECCeko zenbait tokitan harrapatuta gelditu ondoren, pixkanaka topo egingo dute elkarrekin, eta eraikinetik nola irten pentsatzen hasiko dira. Zazpi kapituluk osatzen dute serie osoa, eta abendutik aurrera ikusgai egongo da EITBko plataforma digitaletan. Aurkezpenera hurbildu ziren lagun talde argazki batekin eman zitzaion amaiera ekitaldiari.

Amaitzeko, gogorarazi nahi dugu gure gaurko hizkuntza-ohiturek eragina izango dutela geroa marrazterakoan, eta arnaguneak funtsezko elementua izango garela etorkizuneko Euskal Herrian; arnaguneetan ez ezik, hauetatik kanpo ere euskara zabaltzen dihardute bertako herritarrek, eta tximeleta efektuak nola, ekintza txikiek oihartzun handia izan dezaketela sinetsita gaude.

Itziarko Auzo Udala

81 korrikalari bildu zituen Manuel Mateos Memorialak

Hego-haizeak eragindako giro beroari aurre eginez, 81 korrikalarik lortu zuten urriaren 26an jokaturako lasterketa amaitzea. Soralezuko Jokin Muñoz izan zen azkarrena helmugara iristen; 27 minutu eta 15 segundo behar izan zituen 9 kilometroko ibilbidea amaitzeko. Sei segundo beran-

duago sailkatu zen Iker Ormaetxea ondarrutarra, eta Elorrioko David Rua gelditu zen hirugarren postuan (27'31").

Emakumezkoen kategorian, berriz, Garazi Korta gasteiztarra nagusitu zen (35'23"). Ane Ziarantzen izan zen bigarren postua (37'6"), eta Amaia Zubimendi

zumaierrentzat hirugarrena (37'30").

Sheila Gonçalves (44'18") eta Iker Lobo (29'46") izan ziren azkarrenak herriko ordezkarien artean.

Zazpigarren edizioa izan du aurten Manuel Mateos Memorialak, Deba Xtrem Taldearen ekimenez antolatuta.

Debako eta Itziarko 40 partaide izan ziren Behobia-Donostian

33.000tik gora lagunek eman zuten izena azaroaren 10ean (igandea) jokatu zen Behobia-Donostia lasterketaren 55. edizioan. Eguraldi txarra tarteko, azkenean 27.000 bat korrikalarik parte hartu zuten 20 kilometroko proban; horietatik

40 inguru Deba eta Itziarkoak ziren, (beraien artean 4 emakumezko).

Gure ordezkarien artean, Iker Lobo seniorra (1:12:13 denborarekin) izan zen azkarrena gizonezkoen kategorian, eta Maialen Salegi seniorra emakumezkoen

artean (1:49:45).

Aurtengo Behobia-Donostian, emakumeen izen-emateak errekor berria lortu du, %25,35era iritsiz. Sailkapen orokorra ikusteko aukera dago interneten: www.behobia-sansebastian.com helbidean.

Sekulako giroa Kolore Anitz Egunean!



Beste urte batez, sekulako giroa izan genuen urriaren 26an ospatutako Kolore Anitz Egunean. Musikaz eta ekintzaz betetako eguna izan da aurtengoa.

Goizean, haur pila bat gerturatu ziren plazan egin ziren ekintzetara eta kolorez bete zuten plaza. Pista jolas musikatuan, adibidez, 50 haurrek baino gehiagok parte hartu zuten, eta plazako jokoetan ere ume ugari aritu ziren. Taldearen aurreikuspenak, beraz, sobera bete ziren hitzorduan.

Hala ere, eguneko sorpresa handiena arratsaldean etorri zen; Albokoak Jo Dezala txarangak sekulako jendetza bildu zuen herriko kaleetan. Giro paregabea sortu zuten musikariek, Debako kaleak alaitu zituzten eta etxeko txikiak zein hel-

duek egunaz gozatzeko aukera ederria izan zuten. Era berean, Simon Berasaluze plazan egindako jolasek ere arrakasta itzela izan zuten.

Kolore Anitz Aisialdi Taldeko kideok eskerrak eman nahi dizkiegu egunean zehar antolatutako ekintzetara gerturatu ziren guztiei, baita ekimen horiek posible egin zituztenei ere. Eta noski, eskerrik beroenak Albokoak Jo Dezala txarangari.

Hala ere, dibertsioa ez da bukatu. Aurrez jakinarazi genizuen bezala, Kolore Anitzek bestelako ekimen bat antolatu du azaroaren 24rako. Lehen aldiz, Burdin Kurutz mendi taldearekin elkarlanean mendi irteera bat egingo du.

*Zuhatza Kolore Anitz
Aisialdi Taldea*

Abian dira mintzalagun taldeak

Ikasturtearekin batera, hasi gara dagoeneko talde txikietan biltzen Zuhatza Euskara Elkarteko mintzalagunak. Iaz bezalaxe, oraingoan ere hiru talde sortu ditugu; horietako bi arratsaldez eta bestea goizez.

Mintzalagun ekimenean parte hartzen dugun lagunok bertan izateko hainbat arrazoi ezberdin ditugu: euskara maila hobetu nahi edo behar izatea, euskaraz lagunartean hitz egin ahal izatea, euskaraz ikasten ari direnei laguntzea, euskararen aldeko ekarpena egitea, euskara berreskuratu nahi izatea... Baina guztiok daukagu helburu bera: euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak euskaraz hitz egiteko ohitura ez duten lagunekin elkartu eta denon artean euskaraz gehiago hitz egitea.

Zuk ere, guk bezala, nahi edo helburu bera baldin baduzu, eta bide horretan laguntzeko prest baldin bazaude, zatoz gurekin, egin zaitez mintzalagun!

Ikasturte honetako saioak astelehenetan (16:30etik 17:30era), astearteetan (17:45etik 18:45era) eta ostiral goizetan (11:00etatik 12:00etara) egingo ditugu. Beraz, nahi izanez gero, aukera duzu gurekin batera Mintzalagun ekimenean parte hartzeko. Horrela bada, hurbildu zaitez Zuhatza Euskara Elkartera eta beso zabalik hartuko zaitugu.

Ikasturtea hasita eta taldetxoak abian diren arren, mintzalagun izan nahi duten herritarrek beti izango dute lekua gure egitasmoan. Hortaz, animatzen bazara... gustura hartuko zaitugu gure artean.

*Zuhatza Euskara Elkarteko
Mintzalagunak*

“Berriak jaio ginen”, Jon Maiarekin solasaldia

Jon Maia bertsolariaren bisita izango dugu azaroaren 28an (osteguna) Deban. “Berriak jaio ginen” hitzaldia eskainiko du Kultur Elkartean, 19:00etan, Zuhatza Euskara Elkartean antolatutako saioan –gazte eta helduei zuzenduta egongo da–.

Solasaldian, hainbat bertso, istorio, kantu, hausnarketa eta gertakizunen bidez, bertsolaritzak 90. hamarkadan izandako eraldaketaren errelato pertsonal bat egiten du Maiak, bere bizipen pertsonaletatik abiatuz, garaiko Euskal Herriaren kronika bat eginez eta oraingo bertsolaritzaz ulertzeko gakoak emanez.

Jon Maiaren hitzaldia ez ezik, Jose Mari Carrereren “Maitasunaren arbola” ipuin kontaketa saioa ere antolatu du Zuhatzak hilabete honetan. Azaroaren 21ean izan genuen Carrere gurean, ipuin pre-erotikoak hizpide hartuta.





MENDATAKO IKASLE OHIAK

ETORKIZUNeko IRAKASLE

Iaz bezala, aurten ere gure ikastetxera praktikak egitera etorri dira irakasle izan nahi duten zenbait gazte eta haietako bi elkarrizketatu ditugu oraingoan, beraien ikasketen ibilbideari buruz hitz egiteko: Manex Astigarraga eta Joanes Esturo dira, biak ala biak Mendata institutuko ikasleak izandakoak.

Zer aldaketa ikusi dituzue ikastetxean zuek ikasle zinetenetik?

J.E.: Ba orain hori beste aldetik ikus-tea tokatzen zaigu eta irakasle gelatik irakasleen arteko harremanak ere ikus-tea eta, oraingoz, ikasleak ere aldatu direla ikusi dugu.

M.A.: Bai, lehen baino gehiago daude, baina bestela ikastetxea bera ez da aldatu. Paretak lehengo lekuan daude, porteriak ere bai eta futbola jolas-orduan nagusi.

J.E.: Zoritxarrez.

Zer gustatuko litzaizueke irakastea?

J.E.: Niri hizkuntzak.

M.A.: Eta niri Natur Zientziak.

Zer ikasi duzue? Non?

M.A.: Gasteizen, nik Ingurumen Zientziak eta Joanesek euskal ikasketak.

Gure adina zenutenean, orain ikasi duzuen karrera ikasi nahi zenuten?

J.E.: Inondik inora ere ez, zuen adina

genueanean ez genuen nahi ikasi.

M.A.: Ez genuen nahi ikasi, hori ez zen gure lehentasuna; nolabait esatearren, beste gauza batzuetara bizi ginen. Despistatuagoak ginen, baina beno, behin hanka Debatik aterata, beste interes batzuk sortzen dira eta aurreikusten ez ziren bide batzuk hartu.

Karrera zaila iruditu zaizue?

J.E.: Ikasketak ez, inondik inora ere ez. Oraindik egiteko dugun karrera izango da zailena, ez? Irakasle moduan jardutea, gaur egunean ematen duenez, gero eta betebeharrak gehiago dituen lana da, edukiez harago doazen gauzekin, batez ere.

M.A.: Zuek ikasi nahi baldin baduzue, gu ikasi eta irakasteko prest egongo ginateke. Eta karrerari dagokionez, eduki aldetik ez da karrera zail bat.

Zuen garaiko irakasleek jarraitzen dute?

J.E.: Bai... Asko dira!

M.A.: Bai!

J.E.: Baina beno, batzuk ere aldatu dira eta ez dakit. Egia esan, ez da erraza izan lehengoekin harremanetan jartzea.

M.A.: Bai, lagun zaharrak bezala baina...

Zergatik hautatu duzue irakasle aritzea?

M.A.: Ideia aldetik behintzat, buruan eduki izan dudana aukera bat izan da karrera bukatu dudantetik eta erantzukizun handiko lan bat iruditzen zait. Nahiz eta gustura egingo nukeen, zalantza handiak izan nituen. Baina azkenean ikusten duzu errealitatea zein den lan munduari dagokionez, eta lanpostuak gero eta kaskarragoak eta prekarioagoak dira. Eta horrela, nolabait, nire karrera ikasita behintzat, ikerketan burua sartzen ez baldin baduzue, baldintza nahiko duinetan lan egiteko aukera bakarrenetakoa da hau.

J.E.: Ados nago.



Prentsa tailerra 2019-2020

Goretti Unanue, Lorena Ladera, Elene Molina, Paula Del Olmo, Kimetz Etxabe, Enaitz Goikoetxea, Unax Arrizabalaga, Itziar Egaña, Maria Mendoza, Naroa Etxeberria, Alaitz Albizu eta Unax Urteaga.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala

MARRAZKIAK ISTORIO BILAKATZEN



Mafalda ostiral arratsalde batean telebista ikusten zegoen, eta egunero telebistan agertzen zen betiko iragarkia ikusi zuen berriz; edertasun kremaren iragarkia zen hura. Betidanik oso krema berezia iruditu zitzaion eta aurpegian emateko gogoia izan zuen, baina inoiz ez zitzaion bururatu bere amaren logelako ispiluko altzarian begiratzea ea bere amak krema hura zuen. Sofatik altxatu zen bere gurasoen logelara joateko asmoz. Bere amak zituen krema pote guztien artean begiratu eta hantxe aurkitu zuen hainbeste aldiz amestu zuen krema ikaragarria. Amaren krema ireki eta aurpegian eman zuen. Potean jartzen zuen bezala, hamar minutuz zain egon zen, berriz ispilura begiratzerakoan ederragoa izango zela pentsatuz. Bere pentsamenduan bere aurpegia munduko ederrena zen, baina ez zen horrela izan, krema faltsua zela ohartu zen.

Gure gizartean estereotipo ugari daude eta itxurari garrantzi handia ematen diogu, baina zertarako hainbeste prototipo?

Ez al luke izaerak itxurak baino garrantzi handiagoa izan beharko?

Zaila den arren, bakoitzak bere burua den bezalakoa onartu behar du, **“Gure kaio-la”** abestiak dioen bezala:

“Ze guapa zauden. Ze guapo zauden.

Zer da narratsa hemen ta zer da elegantea? Zeinek esan behar dizu oain itsusia zeala?

Zeinek marraztu digu koadrantea? Zein dao erotuta ta zein da kabala?

Ilusio bat da errealtatea, ta gizonen bizio bat denai araua jartzea.

Norbeantzako horma bat da normalitatea. Baino nik ez det izan nahi normala”.

?? ASMAKIZUNAK

Uniformedun
gudariak
zuri eta gorriak,
gerra ostean,
ordea, burua
beltz eta erreta,
zer dira??

Bi ama eta
bi alaba,
ondo zenbatzen
baduzu,
ez dira lau,
hiru baizik.
Nortzuk dira?

BILATU 8 EZBERDINTASUNAK



AZAROAK 22, OSTIRALA

-**Santa Zezilia eguneko diana** (Musika Banda, 7:00etan, eta txistulariak eta akordeoiak, 8:30ean).
 -17:00. **Odol ematea**, Luzaro eskolan.
 -18:30. **Beldur Barik** lehiaketaren sari banaketa, Agirre jauregian.
 -19:00. **Hitzaldia: "La fuga del fuerte de Ezkaba"** (Fermin Ezkieta), Burugorri Gainean -"Jose Mari Irusta Mugarza gogoratuz" ekimenean baitan-.
 -19:30. **Aitzuri Abesbatza**, kalez kale (Santa Zezilia).

AZAROAK 23, LARUNBATA

-12:00. **Erakusketa** irekiera Itziarko Burugorri Gainean -"Jose Mari Irusta Mugarza gogoratuz" -.
 -13:00. **Santa Zezilia kontzertua**: Debako Musika Banda, elizako klaustroan.
 -21:00. **Afaria eta erromeria** (Elizagoinen Ahizpak), Itziarko Hostalean.
 -22:00. **"Pedaló"** filmaren emanaldia, Gaztetxean.

AZAROAK 24, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz, Luzaro eta Kolorre Anitzen ekimenez: Urkiola-Urkiolagirre-Atxarte.
 -16:30. **Haurrentzako zinea**, Kultur Elkartearen.
 -19:00. **"Bar Bahar entre dos mundos"** filmaren proiektzioa eta ondorengo solasaldia, Kultur Elkartearen (Azaroaren 25aren bueltan antolatuta).

AZAROAK 25, ASTELEHENA

-19:00. **Mobilizazioa** Foruen plazan: Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna.

AZAROAK 26, ASTEARTEA

-19:00. **Bertsotzerkia: "Erradikalak ginen"**, Agirre jauregian (Azaroaren 25aren bueltan antolatuta).

AZAROAK 27, ASTEAZKENA

-19:00. **Irakurketa Kluba**, Ostolaza Udal Liburu-

tegia (Asier Serranok gidatua). *"Pájaros en la boca"* (Samantha Schwebelin) liburua izango dute hizpide.

AZAROAK 28, OSTEGUNA

-19:00. **Hitzaldia: "Beriak jaino ginen"** (Jon Maia), Kultur Elkartearen. Zuhatzaren ekimenez.

AZAROAK 29, OSTIRALA

-18:00. Liburu aurkezpena: *"Venezuela vencerá"* (J.A.Egido), Kultur Elkartearen. Gazte Asanbladaren ekimenez
 -18:30. **Hitzaldia: "Euskaraldia 2019-2020. Gehiago eta sakonago"** (Kike Amonarriz), Agirre jauregian.
 -19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan.

AZAROAK 30, LARUNBATA

-18:00. **Hitzaldia: "Zer ari da gertatzen Katalunian?"** (Jordina Arnatu), Gaztetxean -gaztelaniaz-.

ABENDUAK 1, IGANDEA

-18:30. *"Dantza"* filmaren emanaldia, Kultur Elkartearen.

ABENDUAK 2, ASTELEHENA

-19:00. Olentzero eta Mari Domingoren etorrera prestatzeko **batzar irekia**, Zuhatzaren bulegoan.

ABENDUAK 3, ASTEARTEA

-Euskararen Nazioarteko Eguna.

ABENDUAK 5, OSTEGUNA

-18:00. **Hitzaldia: "Burgosko prozesua"** (Itziar Aizpurua), Gaztetxean.

ABENDUAK 15, IGANDEA

-**Ipuin kontaketak**, ispiluen gelan. 17:00etan, 3-7 urte bitartekoentzat/18:00etan, 7-12 bitartekoentzat.

Negudak Beer Fest Gaztetxean

-Zuzeneko musika eta garagardoa uzartuko dituen festa berezi bat antolatuta da **Gaztetxean** datorren abenduaren 13 eta 14rako: **Negudak Beer Fest**. Karpa bat jarriko dute kanpoan, berogailuarekin, eta ekimen ezberdinak egingo dituzte: *foodtruck*-a arratsalde eta gau guztian zehar, mota askotariko garagardoak aukeratu, talde akustikoen emanaldiak arratsaldean eta gauean (kanpoko karpan nahiz *Gaztetxe barruan*), *Djak* gaua amaitzeko...

Lehiaketak

-Martxan jarraitzen du **Deba Jazz Blai** festibalak antolatutako banden lehiaketak, jazzarekin erlazionatutako musika estiloa jorratzen duten taldeei zuzenduta. Lanak abenduaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira. Informazio gehiagorako: debjazzblai@gmail.com eta Deba Jazz Blai Festibalaren facebook orria.

-**Tene Mujika Bekaren XIV** deialdia egin dute Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz. 6.000 euroko diru-laguntza jasoko du irabazleak. Abenduaren 9an amaitzen da proiektuak aurkezteko epea. Informazio gehiagorako: www.deba.eus eta artxiboa@deba.eus.

KZguneko ikastaroak

-KZguneak arratsaldeko ordutegia izango du azaroan eta goizez arituko da abenduan. Hainbat ikastaro eskainiko dira bertan: Instagram, irudi edo bideoen tratamendua, LibreOffice Writer... Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo www.kzguna.eus ataria.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **abenduak 6, 7, 8, 16, 17, 18, 19.**

Burgoa Zuazo: **azaroak 22, 23, 24. abenduak 2, 3, 4, 5, 20.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Torbio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)



DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
 Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abenduak 7 eta 14

BURGOA ZUAZO: otsailak 23 / martxoak 16

9:30 - 13:00



Uzuri
 optika audio
www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
 20820 DEBA
 Tel: 943192192

RPS: 183/12



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

MARIJE CASTRO IRIBARREN



MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

28 URTEKO ESPERIENTZIA
DEBA

Tel.: 677 557 615

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

50 URTE
BURU - ZURI
Taberna



- Ofartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

Taxi Alain Deba

LIZ.-ZK.: 3

WiFi

636 135 008
alain@taxideba.eus

www.alain.taxideba.eus

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com


Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

943 191 383

berriketan@zuhatza.com



k
kutxabank



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



**JON MAIAREN
SOLASALDIA:
"BERRIAK JAIO GINEN"**

**EGUNA: AZAROAK 28 (OSTEGUNA)
ORDUA: 19:00
LEKUA: KULTUR ELKARTEA**



KOLORE ANITZ URTEAN ZEHAR

AZAROAK 24

ABENDUAK 23

OTSAILAK 21

MARTXOAK 29

APIRILAK 24 25 26

IRTEERA 2008-2011 BITARTEKOAK

IRTEERA 2012-2013 BITARTEKOAK

INAUTERIAK ADIN GUZTIENTZAKO

IRTEERA 2012-2013 BITARTEKOAK

UDALEKU IBILTARIAK 2008-2010

